



elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas



AGIRIA

Bilbao, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Misioak eta Caritas erakundeok guztiz hunkituta gaude Ekuador gure herrialde adiskidea jasaten ari den zoritxarra dela-eta.

Une hauetan, egokia da munduko Elizbarrutietako lehen Misioak Euskal Herrikoak izan zirela eta duela 68 urte Ekuadorren zehaztu zirela gogoratzea. Euskal Elizbarrutietako 400 misiolari baino gehiago izan gara lurralde haietan esperientzia ahaztezinak bizi izan ditugunak: hurkotasuna, elkartasuna, zuzentasunaren aldeko borroka eta Biziaren Jainkoarenganako fedearen senide ospakizuna. Gure elizak urte luzez senidetu egin izan dira, lankidetzaz, presentzia, lekukotasuna eta gutxietsien aldeko aukera konpartituz. Horregatik, ekuadortar herriak jasaten diharduen egundoko zoritxar hau geurea balitz bezala sentitzen dugu. Bereziki Manabiko Portoviejo Artxidiozesikoa, berrogei urtetik gora jardun izan dugu-eta bertan elkarlanean.

Errukiaren Urte honetan, gure ELKARTASUN osoa, hildakoen aldeko OTOITZ itxaropentsua eta lur bedeinkatu honentzat egun hobeak etorriko direneko USTE SENDORIK sakonena adierazi nahi diogu herri maite honi, bere Elizari, eta ezagutzen dugun eta gure bihotzean daramagun hainbeste eta hainbeste gizon eta emakumeri.

Hau dela-eta, Euskal Herriko hiru elizbarrutiok koordinaturik ari gara, hondamendi honen aurrean gure elkartasuna aho batez adierazteko. Premiazko deia egiten diegu gure elkarte, erakunde eta boluntarioei, errukia garatzen dihardugun jarduera eta estrategietan zehazteko, Ekuadorreko behartsu eta kaltetuenei bihotzez eta eraginkortasunez lagundu ahal izateko.

Zehazki, Caritas eta Misioetatik banku-kontuak ireki ditugu hiru elizbarrutietan, emergentziarako une honetan nahiz inguru kaltetuen geroko berreraikuntzan, elkartasuna bideratzeko. Ez dezagun ahaztu, lanik zailena emergentziaren ostean etorriko dela, berreraikuntzari ekiten zaionean eta lurrikarak albiste izateari uzten dionean.

Eukaristia-ospakizun bana egingo da euskal hiriburu bakoitzean, lurrikararen biktimen alde otoitz egiteko eta Euskal Herrian bizi den herri latinoamerikarri gure elkartasuna adierazteko.

Konpromisoa dugu Ekuadorrekin. Ekuadortarren sufrimendua arintzeko betebeharrak morala dugu eta Euskal Herriko Elizatik ahalik eta baliabide eta bitarteko gehien antolatu eta bidali nahi dugu hori lortzeko. Bai premia larriko une honetan eta bai gero etorriko den berreraikuntzan ere. Laguntza eskatzen diegu kristau elkarte osoari eta Euskadiko herritar guztiei.

Eskerrik asko.

KONTU-ZENBAKIAK - BILBAO

FIARE Banca Etikoa: ES52 1550 0001 2000 0269 9726
Kutxabank: ES02 2095 0119 90 9109118774
Laboral Kutxa: ES42 3035 0502 88 5020001842

KONTU-ZENBAKIAK – GASTEIZ

Kutxabank: ES97 2095 3150 22 1091093376
Laboral Kutxa: ES14 3035 0012 73 0120056770

KONTU-ZENBAKIAK – DONOSTIA

Kutxabank: ES85 2095 5001 07 1062435374
Laboral Kutxa: ES74 3035 0060 41 0600100001

SARRERA EGITERAKOAN, **ECUADOR** IPINI.



COMUNICADO

Las delegaciones de Misiones Diocesanas Vascas y Caritas de Bilbao, San Sebastián y Vitoria nos sentimos profundamente impactadas por la desgracia que está sufriendo nuestro país amigo, Ecuador.

En estos momentos es bueno recordar que las primeras Misiones Diocesanas del mundo fueron las del País Vasco y que se concretaron en Ecuador hace 68 años. Más de 400 misioneros y misioneras diocesanas vascas hemos vivido allí experiencias inolvidables de cercanía, solidaridad, lucha por la justicia y celebración fraterna de la fe en el Dios de la vida. Nuestras iglesias se han hermanado durante décadas compartiendo colaboración, presencia, testimonio y opción por los más desfavorecidos. Por eso, sentimos como propia esta terrible desgracia que afecta al pueblo ecuatoriano. En especial a la Archidiócesis de Portoviejo en Manabí con la que hemos colaborado durante más de 40 años.

En este Año de la Misericordia queremos manifestar a ese querido pueblo, a su iglesia, y a tantos hombres y mujeres que conocemos y llevamos en nuestro corazón nuestra SOLIDARIDAD plena, nuestra ORACION más confiada por todas las personas fallecidas y nuestra CONVICCION más profunda de que llegarán mejores días para esa bendita tierra.

Por ese motivo estamos trabajando en coordinación las tres diócesis del País Vasco, para mostrar nuestra solidaridad ante esta catástrofe como una única voz. Instamos a nuestras comunidades, organizaciones y voluntariado a concretar la misericordia en las acciones y estrategias que estamos desarrollando para garantizar una ayuda afectiva y efectiva a los más necesitados y damnificados de Ecuador.

En concreto hemos abierto varias cuentas bancarias desde Caritas y Misiones en las tres diócesis para canalizar la solidaridad tanto en este momento de emergencia como en la posterior reconstrucción de las zonas afectadas. No debemos olvidar que el trabajo más difícil será después de la emergencia cuando comience la reconstrucción de las zonas afectadas y el terremoto ya no sea noticia.

Se van a realizar una celebración eucarística en cada una de las capitales vascas para rezar por las víctimas del seísmo y solidarizarnos con todo el pueblo latinoamericano que vive en el País Vasco.

Tenemos un compromiso con el pueblo de Ecuador. Tenemos el deber moral de mitigar el sufrimiento de su gente y desde la Iglesia del País Vasco queremos organizar todos los medios posibles para conseguirlo. No solo en este momento de emergencia, sino en la posterior reconstrucción. Pedimos a toda la comunidad cristiana en particular y a toda la población de Euskadi en general que nos ayuden.

Gracias.

NUMEROS DE CUENTA - BILBAO

FIARE Banca Ética: ES52 1550 0001 20 0002699726
Kutxabank: ES02 2095 0119 90 9109118774
Laboral Kutxa: ES42 3035 0502 88 5020001842

NÚMERO DE CUENTA – VITORIA

Kutxabank: ES97 2095 3150 22 1091093376
Laboral Kutxa: ES14 3035 0012 73 0120056770

NÚMERO DE CUENTA – GIPUZKOA

Kutxabank: ES85 2095 5001 07 1062435374
Laboral Kutxa: ES74 3035 0060 41 0600100001

INDICAR EN EL INGRESO: **ECUADOR**